

IV. TURISMO TOPAKETA

Abenduaren 25ean Lea Artibaiko IV. Turismo Topaketa ospatu zen Markina-Xemeingo Lea-Artibai Berrikuntza Gunean, Leartibai Garapen Agentziak antolatuta. Aurtengo gaia: "Innobazioa eta produktu turistikoak Lea Artibain".

Topaketa honen helburu orokorra honako hau izan zen: denon artean Lea Artibaiko turismo eskaintza handitzeko produktu turistikoak identifikatu edota sortu. Horretarako, topaketa hausnarketa eta sormen tailerraren formatuaren bidez egin zen.

Egitaraua arratsaldeko lauretan hasi zen, Berrikuntza guneari bisita bat eginez. Horrela eskualdeko turismo sektoreko enpresek lehen kontaktua izan zuten azpiegitura honekin, eta bertan egiten diren proiektuak ezagutzeko aukera izan zuten.

Ondoren, Jose M^a Cazalis Lekeitioko alkatetik topaketaren aurkezpena egin zuen Leartibai Garapen Agentziaren lehendakariaren izenean. Bere hitzek Leartibai Garapen Agentziak turismo sektorearen lehiakortasunean duen papera azpimarratu zuten. Laugarren topaketa izanda, argi geratzen da Lea Artibain turismo arloan dihardugunok, bai erakundeak bai enpresak, interesa daukagula berrikuntza eta turismo arloaren garapenean.

Aurkezpena eta gero, Silvia Pererak, Agencia Catalana de Turisme-ko produktu arduradunak, Catalunya-ko turismo familiarreko jomugei buruz hitz egin zigen. Orain arte kostako helmugak izanda, familiei zuzendutako zerbitzuetan espezializatutako herriak dira. Eskaintzen diren zerbitzuen artean: gela bereziak, jatetxeetan menu egokituak, umeentzat zuzendutako azpiegiturak... hau da, bezeroa segmentatu eta espezializatu egin dira. Orain landa turismoan ere esperientzia pilotu bat egiten ari dira, sistema berdina ezarri zen-bait eskualdetan. Silviak euren esperientzia kontatu zigen, turismo espezializazioan eredu bat izateko gure eskualdean ere. Horrela begirada berri bat nahi genuen zabaldu Leartibai Garapen Agentziatik. Gaur egun, mila aukera daude turismo munduan eta eskaintzan, eta turistaren ezaugarriak kontutan hartu behar dira eskaintza horretan.

Eta atsedena eta kafea hartu ondoren, non sektoreko enpresek elkarren artean ezagutu eta turismoari buruz hitz egiteko aukera izan zuten, tailerrari hasiera eman zen. Horretarako, Cristina Mugicak, LKS S. Coop-eko aholkulariak, dinamizatzaile papera bete zuen. Cristinak Eusko Jaurlaritzako eta Basquetourreko turismo planetan hartu du parte aholkulari modura, eta turismo arloan pertsona aditua da. Tailerrean hasi orduko, berrikuntzari buruz hitz egin zuen: Zer suposatzen du berrikuntzak turismo arloan eta enpresa munduan? Zeintzuk dira bere osagaiak? Zeren bila dabil gaur egungo turista?... hausnarketari hasiera emateko erantzun beharreko galderak. Berrikuntza gure jardueraren gainean begirada berri bat botatzea suposatzen da, gauzak begiratzeko beste era batera lortzea da.



Behin berrikuntza giroa lortuta, Cristinak tailerrari hasiera eman zion. 12-15 pertsonako hiru lan talde egin ziren, bakoitzak laguntzaile baten ardurapean, eta lanean hasi ziren ariketa desberdinak eginez. Hiru gai landu ziren: ondarea, landa- natura turismoa eta Done Jakue Bidea. Hiru gai hauek hartuta, ariketa desberdinak egin ziren turismo produktuak sortu arte: Lehenengo lortu nahi genituen esperientziak landu, eta gero baliabideak, produktuak eta hiru egonaldiko proposamenak jorratu ziren. Pausu guztien emaitzak horman erantzitako paneletan islatu ziren eta denon artean komentatu ziren sortutako produktuak.

Tailerraren helburu espezifikokoak honako hauek ziren:

- Kolaborazioaren bidez dugun berrikuntza kapacitatea antzematea.
- Taldeen bitartez ideiak edo proposamenak sortzeko aukera eman, gero horiek Lea Artibai eskualdean turismo esperientziak bilakatzeko asmoz.
- Balizko ideiak aurrera eramateko kolaborazioak sortzea.

Azkenean lau ordu luze lanean egon ezkerro, hiru proposamen agertu ziren aipatutako hiru gaien inguruan. Dena dela, topaketaren emaitza nagusia zera izan zen: sektoreak duen lan egiteko gogoia eta borondatea, denon artean produktu berriak sortzeko eta Lea Artibaiko turismo eskaintza gaur egungo egoerari egokitzeko.

Jardunaldiak Lea Ibarra Mankomunazgoa, Eusko Jaurlaritzako Turismo Saila eta Bizkaiko Foru Aldundiko laguntzarekin garatu ziren.

IV. Encuentro de Turismo de LEA ARTIBAI

El 25 de noviembre se celebró el IV. Encuentro de Turismo de Lea Artibai, organizado por la Agencia de Desarrollo de Lea Artibai y bajo el siguiente título: "Innovación y productos turísticos en Lea Artibai".

Dirigido al sector turístico de la comarca y a agentes interesados en el tema, se planteó un formato de talleres de innovación en los que, tras la presentación de una experiencia que sirviera de ejemplo de trabajo, se pudiera trabajar para poder construir diferentes productos turísticos en Lea Artibai, enfocados desde el punto de vista de las nuevas tendencias en el turismo actual, y desde un planteamiento de trabajo participativo.

Objetivo general del encuentro: Colaborar entre todos para identificar o crear productos turísticos con el fin de aumentar la oferta turística de la comarca.

Objetivos específicos:

- *Propiciar que los participantes visibilicen su capacidad de innovación a través de la cooperación*
- *Favorecer la generación colectiva de ideas y propuestas que puedan configurarse como experiencias turísticas en la comarca de Lea Artibai*
- *Conseguir que entre todos las ideas surgidas se hagan realidad*

EUSKADIKO PRODUKTU BERRIAK: SURFING EUSKADI

Basquetourrek –Turismoaren Euskal Agentziak Euskadiko Surfaren Garapen Turistikorako Eredua jarri du martxan eta Surfing Euskadi produktua sortu du.

Surfaren turismoa azken urte hauetan turismoaren arloko sektore dinamikoetako eta hedapen handienekoen arteko bat bihurtu da; zentzu horretan, Euskadik bere olatuen potentzialarekin eta surfaren praktikorako hondartzak egokiek in aukera aparta eskaintzen du Surfaren Turismoa garatzeko. Gero eta gehiago, turistak esperientzia berri eta aberasgarrien bila dabilta euren oporraldia eta aisialdia gozatzeko, horrela, xede turistikoak ez dira soilik hautatuko paisaiak eta zerbitzu turistikoak kontuan hartuta, ingurune natural ezberdinek eskaintzen duten abenturaren eta esperientzien pizgarria ere garrantzitsuak dira. Zentzu horretan surfaren praktika partaidetza aktiborako elementua bihurtu da, turista horiek xede turistiko baten bila baitabilta. Azterketa honen helburua da Euskadiko surf turismoaren garapenean inplikaturako agente publiko eta pribatu guztiak behar bezala bideratzea surf turismoaren sektorea garatzeko eta merkaturatzeko ondorengo hiru urtetan (2010-2012), horrela, surf turismoaren garapena hurrengo urtetara begira Euskadiko Turismo Estrategiaren estrategia giltzetako bat da.

Funtsean Euskal Itsasertzeko olatuen potentziala eta kirol modalitate hau Euskadiko gune turistiko ezberdinetan lortzen ari den arrakasta kontuan hartuta, esan ahal da surfaren inguruko produktu turistikoak garatzeko Euskadiren potentziala oso handia dela. Gaur egun, Euskadik jadanik lehiakortasun maila egokia erakusten du surfaren kirolean espezializatu diren itsasertzeko gune horietan; gune horien hobekuntza potentzialak eta surfaren inguruko beste gune batzuen potentzialak, Euskadiko surf turismoaren lahiakortasun maila noizbait munduko esanguratsuen artean aurkitu ahal izango dela pentsarazten digu.

Surfing Euskadiren Ikuspegia

Euskadi surf turismoaren gune iraunkorra eta pribilegiozkoa dela onartu behar da, mundu mailako erreferentziako nortasun propioarekin gainera, surf hondartzak bikainen multzoa eta potentzial nabarmeneko olatuak eskaintzen dituen, lehen mailako surfaren praktikorako azpiegiturak, ekipamenduak eta zerbitzuak barne, turismo eta asialdi eskaintza zabalak, berezia eta paregabea berezkoak dituen.

Ikuspegi hau lortzeko, helburuak eta lerro estrategiko desberdinak finkatu, eta, ondorioz, ekintza plan bat garatzen ari da. Lerro estrategikoak honako hauek dira:

1. Antolakuntza eta gestioa
2. Helmugaren lehiakortasuna
3. Sektorearen lehiakortasuna
4. Turismo produktuen lehiakortasuna
5. Marketing-a

Garatutako ekintzen artean, Surfing Euskadi marka berria dago, eta baita promozio materiala eta surfeko web gunea:

www.surfingeskadi.net

Debido fundamentalmente al potencial de olas que se dan en la Costa Vasca y al éxito que esta modalidad deportiva esta teniendo en algunos de los destinos turísticos de Euskadi, se puede afirmar que el potencial de Euskadi para el desarrollo de un producto turístico en torno al surf es muy elevado. Actualmente, Euskadi ya presenta un buen nivel de competitividad en estos destinos de costa que se han especializado en el deporte del surf, el potencial de mejora que estos destinos, junto al potencial de otros destinos de especializarse en torno al surf, permiten pensar que el nivel de competitividad del turismo de surf en Euskadi puede llegar a ser de las más importantes del mundo



INFORMAZIO GEHIAGO

Leartibai Garapen Agentzia
Markina-Xemein 12 48270 Markina-Xemein
Tel.: 946169088 Fax: 946169217
e-mail: bbasterretxea@leartibai.com
www.learjai.com • www.leaibarra.com

Leartibai
Garapen Agentzia



EUSKADI

Bizkaia



PRESS TRIP informazioa BATZEN

Guillermo Esain, El País Aguilar-eko kazetaria, Lea Artibai ezagutzen egon da abenduaren 11, 12 eta 13an, datorren urtean argitaratu behar duen Euskadiko gida batentzako informazioa batzen. Domeka eta astelehenaren zehar, hainbat baliabide eta enpresa ezagutu ahal izan du Leartibai Garapen Agentziako teknikari baten laguntzarekin. Hauen artean, Ziortzako Kolegiata, Lea Ibilbidea, Markina- Xemeingo kaleak, Ondarruko portua, Lekeitioko itsas Ondare Zentroa... Azken kasu honetan, El País egunkarian argitaratuko du monografiko bat Santa Katalina Itsasargiari buruz, proiektu interesgarria iruditu baitzaio eta.

ANTENA

COMIENZA LA ANDADURA DE TURISMO CON PERROS

La admisión de mascotas en establecimientos hoteleros españoles todavía se encuentra en una fase muy embrionaria y poco extendida. Sólo el 23% de los hoteles de nuestro país se consideran pet friendly (amigos de las mascotas), un porcentaje muy inferior al de otros países donde esta práctica es mucho más común.
(Fuente: <http://clan-destinos.com>)

FERIA INTERNACIONAL DE TURISMO

FITUR en el recinto ferial IFEMA Madrid del 19 al 23 de enero del 2011 (Fuente: www.ifema.es Ferias 2011)

BERRIA

Berriatuan jatetxe berri bat ireki zen ekainean: **Akele jatetxea**.
www.akele.es Telefonoa: 94 613 90 03 Email: info@akele.es

DIRULAGUNTZAK

Mikroenpresa Digitala

Xedea: ordenagailuak erostea, Internetera alta ematea eta hasierako 6 hilabetetako kuotak eta birus-contrako softwarea diruz laguntzen ditu, 9 langiletik beherako enpresentzat.
Epea: 2010/12/31

Praktiketako kontratazioa sustatzeko diru-laguntzak

Xedea: 12 hilabeteko praktiketako kontratuak diruz lagunduko dira.
Epea: 2011/02/28